

HERNANIK kronika

2004 urtea
Apirilak 11
Igandea
Alea: 1074
www.kronika.net

Hernani berritzeko 10 proiektu eta 20 miloi euroko aurrekontua Jaurlaritzaren 'Izartu' programara

■ 'Izartu' gainbeheran dauden inguruak bultzatzeko programa da eta Hernaniko Udalak 4.000.000 euroko (664.744 miloi pta) lagunza eskatu du Jaurlaritzara ■ Erantzuna udara pasata espero da.

UDALAK 10 proiektu eta 20.223.293 euroko aurrekontua aurkeztu ditu Jaurlaritzaren 'Izartu' programaren diru laguntza jasotzeo. Izartu gainbeheran dauden inguruak berritzen laguntzeko programa da. Hernanik laguntza horiek jasotzeo zenbait baldintza betetzen ditu, eta proiektuen % 50eko finantziazioa lortu lezake Gasteizko Gobernuk. Programa horrek bigarrengoz banatuko ditu laguntzak eta Iñaki Arratibelen hitzetan Hernaniko Udalak aurten eskatuko ditu aurrenoko aldiz.

Udalak Izartu programan aurkezteko eskariak 'Hernani 2008' proiektuan bildu ditu, inbertsoak lau urteko epean egitea aurrikusita. Proiektuak dagoeneko martxan daudenak dira eta hiru oinarri nagusi dituzte: garapen era-mangaria, irisbide plana eta hiriberritzea. Hirurak ere Agenda 21 eramangarritasun planaren barruan dijoazen oinarriak dira.

Zenbakietan, 20.223.293 horietatik ia erdia ingurugiro azpiegiturak egiteko proiektuak dira (9.460.000 euro) eta bestea urbanizazioak berritu eta zenbait zerbitzu moldatzeko (10.762.000 euro).

Santa Barbarako harrobia Izartu programara aurkeztutako proiekturik haundieta, dirutan behintzat, Santa Barbarako harrobia berritu eta aisiaaldi gune jartzeko da, de-nera 7 miloi euro pasako proposamena aurkeztu baitu Udalak. Bigarren proiektu haundieta Portu eta Floridan trenbide azpiko pasabideak hobetzea da. Obra horiek 4.434.000 euro inguru kostako lirateke.

Bestalde, Sandiusterriko



Floridak eta Portuko trenbide azpiko pasabidea konpontzea da proiektuetako bat.

JOXAN REKONDO (UDAL ALDIZKARIA)

"Erronka garrantzitsua daukagu 60 eta 70garren hamarkadetan desarrolismo garaian eta dotazio komunitario eskasekin egindako auzoetako bizi kalitatea hobetzen".

"Jaurlaritzaren laguntza lortu edo ez, auzo horiek berritzeko lanak ezin dira gehiago atzeratu. Dagoneko lanean hasita gaude eta faseka osatzeko asmoa dugu".

zaharren egoitza haunditu eta moldatzeko ere ia 3.000.000 euro pasako proiektua aurkeztu du. Izartu programan sartutako beste proiektuak dira: Arriatsuko ingurugiro Eskola; bidegorri sare; urbanizazioa eta zerbitzuak berritu La Cumbren eta Eli-

JAURLARITZAREN LAGUNTZA JASO LEZAKETEN PROIEKTUAK

Inbertsio eremua: Ingurugiro azpiegiturak	9.460.782
1) Ingurugiro eskola Arriatsun	751.787
2) Santa Barbarako harrobia berritzeko plana	7.039.345
3) Bidegorri sare	1.669.650
4) Sandiusterriko Zaharren egoitza haunditu	2.910.375
Azpiegitura ordenamendua eta berritzea	10.762.510
1) Elizatxon urbanizazioa eta zerbitzuak	585.723
2) La Cumbren urbanizazioa eta zerbitzuak	441.084
3) Sorgintxo-Latsunbeberri azera eta zerbitzuak	1.143.578
4) Elizatxon (Oriamendi) urbanizazioa eta zerbitzuak	655.613
5) Trenbide azpiko pasabideak berritu Portu eta Floridan	4.434.134
6) Irisbide plana	592.000

zaton; Sorgintxulo eta Latsonbeberri arteko urbanizazioa; eta irisbide plana. Laguntzak izango diren udara pasata jakingo da seguruena.

Hernaniren 'ahuleziak' Gainbeheran dauden inguruak Jaurlaritzaren programaren harira, Udal Aldizkariak Hernaniri buruzzko zenbait datu ematen ditu, Izartuk baloratu beharko dituenak. Hiru ahulezi azpimarratzen dira: 1) 1986 ezkeroz-

tik % 4,3 galdu da populazioa, EAE halako bi, eta jendeak alde egin izana jotzen du horren arrazoi nagusitzat; 2) Bi-garren ahulezia da kualifikazio falta. Herritarren % 57ak lehen mailako heziketa edo bajuagoak ditu. EAE indize hori % 54koa da; 3) Hernaniko etxeek ingurukoek baino erosotasun gutxiago dute.

Ahuleziei gain hartzeko elementu positiboak ere aipatzenten dira. Nagusiena da lan jarduera tasa alta.

ARALAR TABERNA
Zapa 8 - ☎ 943 33 15 06

A small black and white photo of the exterior of Aralar Taberna, showing a stone building with tables and chairs outside.

GARMENDIA MORTZ KLINIKA
ODONTOLOGIA OROKORRA
TXIRRITA KALEA 13-1^a EZK.
TELEF.: 243 55 34 22

A small black and white photo of the exterior of Garmendia Mortz Klinika, showing a modern building with a glass door.

JOMXA EDARITEGIA
Kale Nagusia, 7
☎ 55 00 32
HERNANI

A small black and white photo of the exterior of Jomxa Edaritegia, showing a modern building with a glass door.

Telemar
Itxastele, S.L.
Elkano 13 - 943 55 33 99 - 943 33 00 49

Telefonia mugikorrean

0€

MOTOROLA C 353 NOKIA 3510i

Pasa zaitez MOVISTARRera
zenbakia mantenduta, 0 eurotik.

A small black and white photo of the interior of Telemar, showing a counter and some equipment.

**Apirilean ere
eskaintza
bereziak**

Elektrogailuetan

TIEN 21 PLAN RENOVE



Aberri Eguna ospatzeko ekitaldia gaur plazan Udalbiltzak deituta

ABERRI Eguna ospatzeko ekitaldia egingo da gaur Gudarien plazan, Udalbiltzak deituta. Ekitaldia eguerdiko 12:00etan da. Bestalde, Bai Euskal Herriari plataformak Euskal Herriko Naziotasun Agiria, EHNA, egiteko deia egin du gaur eta horretarako aukera izango da 11:00etatik 13:00etara, Gudarien plazan bertan. EHNA egiteko eraman beharrekoak: 3 argazki, padroi agiria eta 10 euro. □

Apirilean 60 pertsonek eman dute odola

JOAN den asteartean 60 pertsona izan ziren anbulatorioan odola ematen. Horietatik bi odol emaile berriak izan ziren eta batek organoak ere donatu zituen. □

Nikaraguari buruzko erakusketa jarriko dute Astigarragan

ASTEARTETIK ostiralerako Nikaraguari buruzko erakusketa jarriko du Astigarragako kultur etxearen Honek Gobernuz Kanpoko Erakundeak. Ordua: aste barruan, 18:00etatik 20:30etara; larunbat eta igandean 11:30etatik 13:30etara. Ostegunean *La revolución Sandinista* bideoa botako dute, eta ostiralean *La canción de Carla* pelikula; biak 19:30etan. □

Karabel eta Landare arteko bidea itxitza egongo da hiru hilabetetan, asteazkenetik hasita

UDALTZAINGOAK adierazi du apirilaren 13tik aurrera bidea itxitza egongo dela Karabel eta Landare-Gureola bitartean. Udal-tzaingoak esan du Landarera joateko, Zubiondo zubi berria erabili beharko dela, Ibaiondo poligonotik barrena. □



Aurten ere Santa Barbarako gurutz bidea izan da Aste Santuko ekitaldirik jendetseenetakoak.

Negu giroak ez zuen federik hoztu

- Euritan eta hotzatan, urteroko jendetza izan zen Santa Barbarako Gurutz Bidean
- Gaurko Meza Nagusiarekin bukatuko dira Aste Santuko ekitaldi erlijiosoak.

NEGU giroak negu giro, aurten ere ehundaka pertsona izan ziren Santa Barbarako Gurutz Bidean, Ostiral Santu egunean. Azken urteetan eguraldi bikainarekin ohituta, herenegun euritan eta 5-6 graduoko tenperaturan egin zituzten Jesusen Gurutz Bidearen 14 geldialdiak. Jendearen erantzuna ikusita “18 urte hemen eta oraindik ez nuen Hernani ezagutzen” esan zuen Manuel Odriozola parrokoak. Eta “Hau ere Hernani da” bota zuen gero.

Santa Barbarakoa ez zen

izan Gurutz Bide bakarra, eta herriko hiru parrokietan ere ospatu zen ekitaldi erlijiosoa. Juan Bataiatzailean entzun ziren ideatako bat izan zen pertsona izan nahi duenak hurkoa izan behar duela. Aipatu zen asko daudela Jainkoagatik edozer egiteko pronto. Hurkoagatik ere gauza bera egin eta berdin jokatzearen garrantzia arrazimarratu zen.

Gurutz Bidean gerrak, hilketak, gosea, injustiziak, torturak eta presoen egoera kritikatu ziren, besteak beste. Giza eskubideak aldarrikatu eta “in-

darkeriarik gabeko indarrean” sinisteko eskatzean gain, beste mezuetako bat izan zen “lasai bizitzeko arrazoi bila ibili beharrean, elkarri laguntzeko arrazoi bila ibiltzeko”

Pazko Igandea gaur

Erramu Igandean hasitako ekitaldiak, gaur, Pazko Igandean bukatuko dira hiru elizetan egingo den Meza Nagusiarekin: Ereñotzuko San Antonio elizan 10:30etan, Alde Zaharreko Juan Bataiatzailean 11:00etan, eta Floridak Jose Langilean, 12:00etan. □



Gurutz Bidean ostiralean, Santa Barbarara iristen.

dobEra
EUSKARA ELKARTEA

DOBERA SARIA II.EDIZIOA

3.000 EUROKO DIRU LAGUNTZA

HERNANIRI BURUZKO LAN BAT SARITUKO DA:

- Banaka zein taldeka egin daiteke.
- Lana euskaraz izango da.
- Lana egiteko epea: 6 hilabete.
- Proposamenak aurkezteko epea **aprilaren 30a**.
- Agiri guztia Dobera Elkartera bidali behar dira. (Larramendi - 11 ; Telf: 943-832799)

Hernaniko Udala

HITZ BITAN



Peña Otañoko mus txapelketako sarituak iaz.

✓ PEÑA OTAÑO

Mus txapelketa martxan. Peña Otaño elkarteko mus txapelketa martxan da eta datorren astean bost partida jokatuko dira, hilaren 15ean hain zuzen ere. Igor-Gorka/Eugenio-Garmendia; Aitor-Luis Mari/Vicente-Manolo; Balantxa-Balantxa/Enrike-Linter; Rekalde-Bilbao/Pello-XX; eta Alejos-David/Juan Ig-Luis. Aurreko urtean, Balantxa aita-semeak irabazi zuten txapelketa.

✓ MUS TXAPELKETA

Herri arteko mus txapelketa hilaren 15ean. Herri arteko mus txapelketa apirilaren 15ean hasiko da eta aurreneko saioa herriko jokatuko da. Hernanin Garin tabernan izango da, gaueko 21:00etatik aurrera. Izena ematea zabalik dago eta saria afaria izango da lehenengo bi bikoteentzat. Gero, eskualdeko fasea jokatuko da Usurbilen, hilaren 17an eta lau aurrenekoentzako izango dira sariak. □

✓ MUSIKA

Disko Festa gaur Oialumen. Gaur arratsaldean Disko Festa eta DJ Black izango dira Oialumen dantzalekuaren. Jaia 19:30etan hasiko da. □

II. URTEURRENA
Xatur Agirre Peruarena
2002ko apirilaren 10ean hil zen

Emazte, seme-alaba, anai-arreba, biloba eta gainerako senideek, oroigarri meza eskaini nahi diogu, eta bertara gonbidatu nahi zaituztegu ezagutzen zenuten guztiak.

Urtebetetze meza, gaur, igandea, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Joan Bataiatzailea parroki elizan.

Hernanin 2004ko apirilaren 11an

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

+ FARMAZIAK

- Egunez: Bulnes Florida auzoa
☎ 943 557738
- Gauetan: Elizondo Andoain. Zumea 30
☎ 943 592629

IRAGARKI MERKEAK

Hernani inguruko jatetxe batean barrarako zerbitzari bat behar dugu. Ibilgailua behar da. Deitu: 943 55 02 54 (astelehenetik-ostiralerak) edo 608 12 07 32

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Neska euskaldun bat behar da eguerditan baxkariak serbitzeko, Hernanin. Interesatuek deitu astelehena, hilaren 12an, goizeko 11:00etatik aurrera, 628 29 36 98.

10 urteko Ford Escort familiarra salgai. 1.500 euro. 629 76 30 41